

HISTORIAURREA

ARIKETAK



1. Esan **EGIA** ala **GEZURRA** diren esaldi hauek:

- Paleolitoa historiaurreko hirugarren etapa da.
- Paleolitoko gizakiak nomadak ziren.
- **NOMADA** hitzak esan nahi du toki finko batean bizi zirela .
- **Nomada** hitzak esan nahi du toki batetik bestera ibiltzen zirela janari bila.
- Eremu beroetan kobazuloetan bizi ziren.
- Eremu hotzetan aire zabalean bizi ziren.
- Familia batzuk elkartzen ziren eta tribuak osatzen zituzten.
- Paleolitoko gizakiek lantegietan egiten zuten lan.
- Paleolitoko gizakiek **FRUITUAK** biltzen zituzten.
- Paleolitoko gizon- emakumeek **METALEZKO** lanabesak fabrikatzen zituzten.
- Paleolitoko gizon- emakumeek **HARRIZKO** eta **HEZURREZKO** lanabesak fabrikatzen zituzten.
- Ebakitzeko labanak eta gezi-puntak ehizatzeo fabrikatzen zituzten.
- Paleolitoak lehen gizakia sortu zenetik nekazaritza asmatu arte hartzen du.

2. Lot itzazu **GALDERA** hauek dagozkien **ERANTZUNEKIN**:

- 1 **Zer materialez** zeuden eginda gizakiak erabili zituen lehen lanabesak?
- 2 Paleolitoko gizon-emakumeak **ez ziren beti toki berean bizi**. Zergatik?
- 3 **Nola antolatzen ziren** Paleolitoko gizakiak?
- 4 **Zenbat irauten du** Paleolitoak?
- 5 **Zer jaten zuten** Paleolitoko gizon eta emakumeek?

	Familia gutxi batzuek osatutako TRIBUTAN bizi ziren.
	Lehen gizakia sortu zenetik NEKAZARITZA eta ABELTZAINZA asmatu zituzten arte irauten du.
	Naturak ematen ziena : fruituak biltzen zituzten, animaliak ehizatzen zituzte eta arrantza egiten zuten.
	Ez, toki batetik bestera ibiltzen ziren . Janari bila joaten zirelako.
	Harrizko eta hezurrezko lanabesak egiten zituzten.

3.- Erantzun :

a) Non bizi ziren Paleolitoan?

b) Nola **antolatzen** ziren?

c) Zer esan nahi du **NOMADA** hitzak?

NEOLITOA.



1.- Zer **aldaketa** gertatu zen **NEOLITOAN**?

2.- **Nomadak** izaten jarraitu ziren?

3.- Neolitoko gizakiak **non bizi ziren**?

4.- Neolitoan **toki finko batean bizi ziren**, nola deitzen zitzairen?

5.- Zer **produktuak** lantzen zituzten nekazaritzan?

6.- Lehenengo eraikitzen hasi ziren.

7.- Hiru aldaketa **tekniko** gertatu ziren NEOLITOAN, zeintzuk izan ziren?

4. Markatu **X batekin** gertakari bakoitzari dagokion etapa (1p):

AROAK	PALEOLITOA	NEOLITOA	METAL AROA
Gizakiak nomadak ziren			
Gizakia sedentarioa bihurtu zen			
Kobazuloetan bizi ziren gizakiak			
Nekazaritza eta abeltzaintza agertu ziren			
Metal objektuak hasi ziren fabrikatzen			
Lehenengo hiriak sortu ziren			
Biltzen, ehiza egiten eta arrantzan ibiltzen ziren			
Etaparen bukaeran idazkera agertuko da			
Tresna nagusiak harriz eginda zeuden			
Homo Sapiens espeziea agertu zen			